

KIT ELEKTRIKOA

Mod 3/EMKA/456 KARGA ETA ABIO SISTEMAK

Iraupena: 10 ORDU

Taldekatzea: 3x2



Hasiera data: "2023-12-19"

Antolaketa: modulo bakarra

Erronka

Gurpildun aulkiaren elektrifikazioaren erronkaren baitan dagoen erronkatxoa da hau. Helburua, ibilgailu ezberdinetako kit elektrikoak aztertuz, euren elementuak ezagutu eta funtzionamendua ulertzea da.

Talde bakoitzari, ibilgailu elektriko bat emango zaio. Bere elementuak identifikatu beharko ditu eta bakoitzaren funtzionamendua eta kit osoarena ulertu. Horretarako, informazioa bilatzeaz gain, neurketak egin beharko ditu elementu bakoitza egiaztatzeko. Ikasitakoa, aurkezpen batean isladatu eta beste klasekideei azaldu beharko die.

Helburu orokorrak / Ikaskuntza emaitzak

3. Neurketa eta kontroleko tresneria maneiitzea, horren funtzionamendua azaltzea eta matxurak aurkitzeko behar bezala konektatzea.

9. Ibilgailuaren sistemen elementu mekanikoak, pneumatikoak, hidraulikoak eta elektrikoelektronikoak desmuntatu, muntatu eta ordezkatzeko bidezko eragiketa-teknikak eta - metodoak aplikatzea, horiek mantendu eta konpontzeko.

10. Kontrol-unitate elektronikoen funtzionamendua eta ematen duten informazioa aztertzea (horiek kargatzea, datuak ateratzea eta berrezartzea), mantentze-lanetarako beharrezko informazioa lortzeko.

11. Neurketak egitea eta emaitzak erreferentziazko parametroen balioekin alderatzea, eskuhartzeen emaitzak egiaztatzeko.

Mod.3/EMKA/0456 KARGA ETA ABIO SISTEMAK

IE3.1 Ibilgailuen oinarrizko multzo elektrikoaren eta elektronikoen funtzionaltasuna ezaugarritzen du, elektrizitatearen eta magnetismoaren legeak eta arauak aplikatuta.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

-Lanerako jarrera

-Autonomia

-Komunikazioa

1. Taldea martxan jarri

Iraupena: "1 ordu"

Taldearen ezagutza taula bete eta ondoren "talde plana" dokumentua osatu.

2. Arazotik erronkara

Iraupena: "1 ordu"

Zer eskatzen du erronkak? Nola egin behar duzue dagokizuen ibilgailuaren azterketa?

Boundary examination ariketaren bitartez egin

3. Informazioa lortu eta antolatu

Iraupena: "6 ordu"

Talde bakoitzak, egokitu zaion ibilgailuaren buruzko informazioa jasoko du bai ibilgailua bera aztertuz, interneten bilaketak eginez, zein irakasleek partekaturiko informazioa baliatuz. Informazio hau xehetu eta modu antolatuan jaso beharko du powerpoint, prezi moduko euskarri batean.

4. Ibilgailuaren azterketa aurkeztu

Iraupena: "1 ordu"

Egokitu zaizuen ibilgailu elektrikoari buruz ikasi duzuen aurkeztuko diezue beste klasekideei.

5. Ikerketak hausnartu

Iraupena: "1 ordu"

Talde bakoitzak egindako aurkezpena talde handian eztabaidatuko da.

Aurkezpen bakoitzaren alde onak eta txarrak jasoko dira talde handian (arbela erabiliz)

Talde bakoitzak, ikaskideek egindako iradokizunak jasotzea garrantzitsua izango da ikerketa hobetu eta aurreragoko lanetan kontuan hartzeko.

Egin beharrekoak

1.- Proposatzen diren neurketen taula osatu

2.- **Power point moduko euskarri bitartez aurkezpen bat** egokitu zaizuen ibilgailuari buruz. (Moodle)

Ebaluazioa irizpideak

GAITASUN TEKNIKOAK

IE 3.1: . Ibilgailuen oinarrizko multzo elektrikoaren eta elektronikoaren funtzionaltasuna ezaugarritzen du, elektrizitatearen eta magnetismoaren legeak eta arauak aplikatuta. <ul style="list-style-type: none">• Motor elektrikoak: ibilgailu elektrikoak eta hibridoak.	<ul style="list-style-type: none">- Neurketen taula %25- Aurkezpena %75
--	--

ZEHARKAKO GAITASUNAK

Lanerako jarrera	<ul style="list-style-type: none">• Lanerako predisposizioa• Ikaskide eta irakasleekiko errespetua	Behaketa %100
Autonomia	<ul style="list-style-type: none">• Erronka dokumentua irakurri eta jarraitu• Arazoen aurrean duzuen jarrera	Behaketa %100
Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none">• Aurkezpen idatziaren kalitatea• Ahozko komunikazioa aurkezpenetan	Aurkezpena %100

Baliabideak

Gela, tailerrak, liburuak, esku-liburuak eta portatilak

Denbora antolaketa

Astea: 2023-12-19.tik 2023-12-22.ra

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00					
9:00 – 10:00					
10:00 –11:00					
11:30 –12:30					
12:30– 13:30					
13:30 –14:30					